




Denbora-

1 Moztu eta osatu

Hona hemen Peruk basoan jaso dituen lau hosto. Hostoei, ordea, beheko zatia falta zaie. Lotuko al dituzu hosto bakoitzari dagozkion bi zatiak?





2 Lotu bikoteak

Arrainak salgai jarri aurretik, balio berekoak binaka jartzea gustatzen zaio Mainerri. Hori kontuan izanik, jarri arrainak binaka.

3 Bikiak

Galtxagorri deabrua ez da inora joaten bere sarderik gabe; horrexegatik ditu bi berdin-berdinak. Multzo honetako zein sarde dira Galtxagorrirenak?



4 Itzala

Basoaren erdian topatutako zuhaitz bakartiari argazkia atera dio Aitorrek. Zein da basoko zuhaitzaren itzala?

- pasak

MORTADELO
TINTIN
ASTERIX
MAFALDA



HERGE

QUINO

F. IBAÑEZ

A. UDERZO

5 Sagu Jakintsua

Komikiak irakurtzea gustuko al duzu?
Asmatuko al zenuke
komikiko pertsonaia
bakoitzaren egilea nor den?

ERANTZUNAK: 1.-a-2, b-4, c-1 eta d-3. 2.- A-F, E-D, G-B eta H-I. 3.- a eta c. 4.- 3. 5.- Mortadelo-F. Ibañez, Tintin-Herge, Asterix-A. Uderzo, Mafalda-Quino.

Azeria eta antzarak

Antzara bazara, kontuz azeriarekin, gosez dago eta. Azeriaren lekuan jartzen bazara, berriz, argi ibili antzarekin, inguratuz gero mugitu ezinik gertuko zara eta

1 Jolas honetarako 13 fitxa hori eta urdin bat behar dira. Fitxa horiak antzarak izango dira, eta urdina azeria. Jolasean hasi aurretik, marrazkian agertzen den moduko taula marraztu behar da orri batean. Ondoren, kokatu fitxa bakoitza dagokion lekuan (ikus marrazkian).

2 Jokalariak, txandaka, fitxak mugitu behar dituzte hutsik dauden hutsuneetara. Mugitu, baina, alboko hutsuneetara mugitu behar dira. Taulan marraztutako marra jarraituz egin behar dira mugimendu guztiak, hala bada, fitxak ezin dira diagonalean mugitu.

3 Azeriak antzarak jan ditzake. Horretarako, azeriak antzararen gainetik salto egingo du, antzararen ondoren dagoen hutsunean fitxa utziz. Hutsunerik ez badago, ezingo du antzara jan, noski. Antzara jatean, fitxa hori taulatik kendu behar da. Aukera izanez gero, bi antzara ere jan ditzake segidan.

4 Antzarek ezingo dute azeria jan, baina inguratu edo alboratu dezakete, mugitzeko aukerarik gabe utziz.

